

Startinnova IV - Diru-sarrerak

Gure negozioaren diru-sarreraren iturri nagusia lokalean egindako salmentak izango dira. Salmenta horiek, batez ere, eskaintzen ditugun zerbitzuetara bideratuta egongo dira; bertan, kafea hartzeko tokiaz gain, eztabaida-gune bat, hitzaldiak eta irakurketa-klubak eskaintzen ditugu. Beraz, egiten diren kafe-salmentengatik ez ezik, jarduera horietan eskaintzen ditugun jateko eta edateko produktuengatik ere lortuko ditugu diru-sarrerak.

Gathering & Co-n hasieran lortzen ditugun mozkinak kapital-inbertsio handia berreskuratzeko balioko digute. Egunero kontsumitzeko oinarrizko produktuak eskaintzeari esker, negozioaren hasieratik irabaziaz lortzea aurreikusten da.



Gure sarrera-iturria ordainketa bakarren bidez izango da; hau da, bezeroak gure produktua erabiltzeagatik soilik ordainduko du, bere beharra asetzeko.

Era berean, egiten dugun publizitatea beste diru-iturri bat izango da, beste negozio eta marka batzuk sustatuz. Beren balioekin benetan ados gauden markekin lan egingo dugu beti, eskaintzen diguten kopurua edozein izanda ere; hots, irabaz dezakegun diru askorengatik, publizitatea eskatzen digun enpresaren balioak eta etika gurearekin bat ez badatoz, etekin aukera hori baztertuko dugu.